

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Ikasi eta prestatzeko garraiorako 2024-2025 ikasturteko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2025eko martxoaren 20ko erabakiaren laburpena

BDNS(Identif.): 823632.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/823632>).

Lehenengoa. Onuradunak

Ikasturtea hasteko egunean Zuiako udalerrian erroldatuta, gutxienez, urtebete daramaten eta ikastaroa bukatzen den eguna arte etengabe erroldatuta jarraitzen duten unibertsitate ikasketa arautuak, batxilergoa eta lanbide-heziketa egiten dituzten pertsonak, zein Zuiako Udalak sustatu edo diruz lagundutako ikastaroak egiten dituztenak edo herri-erakundeek sustatu eta lan-munduratzera zuzendutako ikastaroetara doazen langabetuak, udalerritik kanpora joan behar badute.

Bigarrena. Xedea

Diru-laguntzaren helburua da udalerrian unibertsitate ikasketa arautuak, batxilergoa eta lanbide-heziketa eskaintzen dituzten ikastetxerik ez egoteagatik udalerritik kanpora joan behar duten ikasleei, zein zuzenean lan-munduratzera zuzendutako ikastaroetara udalerritik kanpora doazen langabetuei edo Udalak sustatu edo diruz lagundutako ikastaroak udalerritik kanpo egiten dituzten ikasleei diruz laguntzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2025eko martxoaren 20an onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Partidaren diru-zuzkidura 17.500,00 eurokoa da eskola-garraiorako eta 2.000,00 eurokoa lan-munduratzera zuzendutako ikastaroetara doazenentzat.

Unibertsitate ikasketa arautuaren, batxilergoaren eta lanbide heziketaren kasuan zenbatekoa kopurua finkoa izango da eta ikasleek bizileku duten herriaren eta dagokien ikastetxea dagoenaren arteko distantziaren arabera ezarriko da.

- 40 km. arteko distantzia: 150,00 euro.
- 40 eta 80 km bitarteko distantzia: 175,00 euro.
- 80 km-tik gorako distantzia: 200,00 euro.

Langabetuen kasuan, gehienezko laguntza 150,00 eurokoa izango da (100 ordutik gora) eta diru-laguntza egindako ikastaroaren edo ikastaroen iraupenaren arabera ezarriko da, gutxienez ere 25 orduko iraupena eskatuko delarik.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epearen azken eguna: 2025eko irailaren azken egun balioduna, udalak sustatu edo diruz lagundutako ikastaroak direnean izan ezik, amaitzen den arte luzatuko baita, baina gehienez ere 2025eko abenduaren 15era arte.

Dokumentazioa udalaren erregistro orokorrean aurkeztuko da.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus/orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo Oinarrietan azaltzen dira.

Murgia, 2025eko martxoaren 28a

Alkate-udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA